Historio hau kontatu ziguten
Jose Luis de la Mata / Luix Marko
nos contaron esta historia...

HOPY INDIARRA

XX. mendearen hasieran bazterketa eta etnozidioa jasaten zituzten Ipar Amerikako indiar herrietariko batean ume bat jaio zen. Jaiotzerakoan eta erritual egoki baten bidez, tribuko aztiak aurresan zuen umea bere herriarentzat oso garrantzitsua izango zela.


Umea gizon bilakatu zen. Bere tribuan ez ohiko izanik ere, goi mailako ikasketak burutu zituen eta Estatu Batuetako jende zuriaren munduan aurkitu ahal izan zuen lana. Hain arrakasta handia izan zuen, hogeita hamarreko hamarkadan presidentearen aholkulari bihurtu zela.

Baina, aldi berean, psikoanalistarengana joaten hasi zen eta handik gutxira desagertu zen. Hura izan zen gizon honen azken berria zurien munduan.

Urte dezente pasa ondoren, antropologo batek Hopy indiarrei buruzko ikerketa hasi zuen eta, beraien artean zegoelarik, agure bat ezagutu zuen: desagertua hain zuzen. Oso gizon maitatua zen bere kideen artean. Agureak bere desagerpenaren zergatia honela adierazi zion:

Garai hartan berak deitu "gatazka homosexual" zela eta hasi zuen psikoanalisia. Arazo hura presidentearen taldearentzat zein zurien munduarentzat zeharo onartezina zen. Horregatik bere herrira itzuli zen eta han bere jaiotzak gorderik zuen zentzua ezagutu izan zuen. Bere amak bizkiak zituen sabelean, neska eta mutila. Horregatik, kolore ezberdinetako hari bana lotu zuen bere ezkumuturretan. Erditu baino lehentxeago erritual konplexua egin zuten bi hariak elkarrekin lotuz, amarentzako eskumuturreko bakarra osatuz. Horrela, artasuna zein emetasuna bere baitan zituen ume bat jaio zen. Horregatik izango zen garrantzitsua eta jakintsua tribuarentzat.

Bere norberatasunaren balore berria ezagutu, bere herrian bizitzen geratzea erabaki zuen eta ez zen zurien mundura inoiz ere bueltatu.



EL INDIO HOPY

A principios del siglo XX nació un niño en uno de los pueblos indios norteamericanos que sufrían la marginación y el etnocidio. Al nacer y mediante el ritual apropiado, el hombre sabio de la tribu predijo que este niño sería alguien muy importante para su pueblo.

Este hombre creció y, cosa excepcional, tuvo la oportunidad de estudiar y trabajar en el mundo blanco estadounidense con tal éxito, además, que en la década de los treinta llegó a formar parte del equipo de asesores del presidente.

Pero se supo que a la vez comenzó a psicoanalizarse y que al poco tiempo desapareció completamente del mundo en que hasta entonces había vivido.

Pasados bastantes años una antropóloga comenzó a realizar un trabajo de investigación sobre los indios Hopy y, estando con ellos, conoció a un anciano venerado por su pueblo como alguien muy sabio e importante para los suyos. Era aquél que había desparecido años atrás y así le contó a la mujer el por qué de su abandono del mundo de los blancos:

Comenzó a psicoanalizarse por lo que entonces él llamaba un "conflicto homosexual", algo totalmente inharmonizable en el mundo blanco e impresentable en el equipo del presidente. Volvió a su pueblo y allí le contaron el significado que encerraba su nacimiento. Su madre estaba embarazada de mellizos, una niña y un niño y así llevó durante la gestación dos hilos de colores diferentes cada uno atado a una muñeca. Poco antes del parto realizaron un complejo ritual entrelazando los dos hilos y formando con ellos una sola pulsera para la madre. Y de esta forma nació él, un niño que poseía las propiedades y posibilidades de lo femenino y lo masculino en una única persona, por eso sería sabio e importante para su tribu.

Y con este nuevo sentido de valor para lo que hasta entonces había sufrido como conflictivo, decidió quedarse a vivir con su pueblo y no volvió más al mundo blanco.